



# LEAGUE OF LEGENDS 1 VS 1 TXAPELKETA

## 1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

- 1.1. Mangamore 2024ko League of Legends 1 vs 1 Txapelketa aurrez aurre urriaren 12an, larunbata, egingo da 11:00etatik 14:30era, Zornotza Aretoan (Urbano Larruzea kalea, z/g).
- 1.2. Plazak 16 partaidetara mugatuta daude. Gehieneko inskripzio-kopurua gainditu ondoren, jokalariai erreserba-zerrenda batean sartuko dira, izena emateko hurrenkeran.

Parte hartzea baieztatzeko, antolatzaileek harremanetan jarriko dira, telefonoz edo posta elektronikoz, txapelketaren aurreko egunean. Ezeztapenak badaude, erreserba-zerrendako hurrengo pertsonarekin jarriko da harremanetan.

**Txapelketa hastean izena eman duen jokalaria bat bertan ez badago erreserba-zerrendako hurrengo pertsonak ordezkatu du.** Jokalarien egiaztapena 11:00etatik 11:15era egingo da. Beranduenez, partidak 11:30ean hasiko dira. Hori dela eta puntualtasuna eskatzen da.

- 1.3. Parte hartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa izango da.
- 1.4. Parte-hartzaileak antzokian zehar banatuko dira eta uneoro aretoko langileen eta txapelketako antolatzaileen jarraibideak bete beharko dituzte.

Era berean, txapelketan zehar, parte-hartzaileek besaulkietan eserita egon beharko dute, antolatzaileek hala adierazten dutenean izan ezik.

## 2. TXAPELKETARI BURUZ

- 2.1. Txapelketa hasi aurretik parte-hartzaileen egiaztapena egingo da.
- 2.2. Txanda-sistema sailkapen-sistema simple baten bidez egingo da, hau da, partida irabazten duen jokalaria sailkatu egingo da.
- 2.3. Bi jokalarietako bat 100cs, 1 kill edo lehen dorrera iristen denean emango da amaitutzat txanda.

### 3. IZEN-EMATEARI BURUZ

- 3.1. Izen-ematea online egingo da irailaren 23ko (astelehena) 20:00etatik urriaren 11ko (ostirala), 20:00etara, formulario honen bidez: <https://forms.gle/GeYrLp4kgMReQRg78>

Bestalde, plaza librerik balego, urriaren 12an, larunbata, Zornotza Aretoan izena eman ahal izango da 11:00etatik 11:15era txapelketa hasi aurretik.

Izena emateko formularioarekin zalantzak edo arazoak izanez gero, [lagun.eclub.sm@gmail.com](mailto:lagun.eclub.sm@gmail.com) helbidera mezu elektronikoa bat idatz daiteke.

Halaber, jardunaldietan formularioarekin zailtasunak izanez gero, urriaren 11n, ostirala, 17:00etatik 21:00etara Zelaieta Zentroko Informazio Gunera joatea gomendatzen da.

- 3.2. Formularioan honako datu pertsonal hauek emango dira:

- Izena, abizenak
- Jaiotze-data
- E-maila
- Telefono-zenbakia (harremanetan jartzeko antolaketa-premiarik izanez gero)
- Inbokatzaile izena

- 3.3. Izen-ematea baieztatzeko, antolatzaileek mezu elektronikoa bat bidaliko dute [lagun.eclub.sm@gmail.com](mailto:lagun.eclub.sm@gmail.com) helbide elektronikotik formularioan erabili den helbide elektronikora.

Izen-ematea ekitaldia egiten den bitartean egiten bada, antolatzaileek ez dute mezu elektronikorik bidaliko, baina urriaren 11n, ostirala, 17:00etatik 21:00etara, Zelaieta Zentroko Informazio Gunean izen-ematearen egoera egiaztatu ahal izango da.

Plazak bete ondoren, antolatzaileek ohar bat jarriko dute izena emateko formularioan, izena erreserba-zerrendarako emango dela adieraziz. Hala ere, txapelketara joatea gomendatzen da, plazarik libre balego ere.

### 4. SARIEI BURUZ

- 4.1. Sariak hurrengoak izango dira:

1. saria: 50€ + domina + opariak
2. saria: 30€ + domina + opariak

Bestalde, opariak merchandising produktuak, mangak, liburuak, Artist Alley-ko artisten sorkuntzak, elikagaiak eta abar izan daitezke.

- 4.2. Ekitaldia amaitutakoan, antolatzaileek harremanetan jarriko dira diru-sariak jasotzeko posta elektronikoa bat bidaliz edo telefonoz.

Sarituak adingabeak badira, izapidea aitarekin, amarekin edo legezko tutorearekin egingo da.

## 5. ANTOLAKUNTZARI BURUZ

- 5.1. Oinarri hauetan araututa egon ez arren, txapelketaren arrakastarik handiena lortzen laguntzen duen edozein ekimen hartzeko eskubidea izango dute antolatzaileek.
- 5.2. Antolatzaileek errespetuzkoa eta dibertigarria den partaidetza-testuingurua sustatu nahi du.
- 5.3. Txapelketan izena emateko emandako datu pertsonalak konfidentziasunez erabiliko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 03/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. **Datuak txapelketa hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako.**
- 5.4. Publizitaterako, txapelketako parte-hartzaileen irudiak (argazkiak, bideoak, etab.) hainbat komunikabidetan erabili ahal izango dira: telebista-programetan, Interneten, egunkarietan, aldizkarietan, etab. Irudi horiek ez dira inola ere helburu komertzialetarako erabiliko. Ez da ordainsari ekonomikorik egongo sustapen-neurri horiengatik.
- 5.5. Txapelketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar. Arau bat edo batzuk ez betetzeak lehiaketatik kanporatzea ekar dezake

## HARREMANETARAKO BIDEAK:

Zalantzarik izanez gero, [lagun.eclub.sm@gmail.com](mailto:lagun.eclub.sm@gmail.com) helbidera mezu elektronikoa bidal dezakezu edo Instagrameko [@lagun\\_eclub](https://www.instagram.com/lagun_eclub) kontuaren bidez harremanetan jari.

